

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Bernedoko Udalean estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua bete behar da, bitarteko izendapena duen funtzionarioak betetzen ez duelako.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hasiera ematea Bernedoko Udalen idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatzeko prozedurari, Bernedoko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan xedatutako moduren batean eta adierazten duten lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Bost egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartze eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estatutako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-
duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Bernedoko Udalak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estatutako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. mota.

Lan harremana: estatutako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estatutako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailera.

Azpitaldea: A1/A2.

Destino-osagarriaren maila: 26.

Berriarazko osagarria: 22.123,08 euro.

Hizkuntza eskakizuna: C1 simetrikoa (C1C1).

Derrigortasun-data: 2024ko ekainaren 4a.

Bernedon, 2026ko irailaren 17an

Alkateordea

RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; telefono zenbakia:; Estatutako gaikuntza duen toki administratioko funtzionarioa:; azpieskalakoa; gaur egun lanpostuan dihardut, toki erakundean, (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–),

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Bernedoko udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapen bidez betetzeko aukera dagoela, zerbitzu eginkizunetan edo zereginen metaketagatik.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Bernedoko udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapen bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin metaketa bidez (ezabatu soberan dagoena) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Hauek eransten ditut:

*NANaren fotokopia.

*Estatutako gaikuntza duen toki administratioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

*Postua metaketa bidez eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

*Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea

....., 20.....(e) koaren(a).

Sinadura: